

ORIO EKIPAMENDUAK

1.SAIOA – AKTA – HEZKUNTZA/SOZIO-SANITARIOA/MERKATARITZA-TURISMOA

Noiz eta non: 2017-11-29, 19:00etatik 21:00era, Kultur Etxean.

Partaideak: guztira 37 lagun (emakumeak 26 eta gizonak 11).

Turismo arlokoak 10; merkatariak 2 (bilera 19:00etan izanagatik zailtasunak); sozio-sanitario arlokoak 2; hezkuntzakoak 10. Gainontzekoak, udal-hautetsi eta teknikariak (13).

Esan eta jasotakoak:

1. Oriok dituen ekipamenduak kontuan hartuta, oro har, zer azpimarratuko zenukete?

- Oro har azpiegitura nahikoak
- Aurrekontu txikia, mugatua, mantentzeko eta inbertsioetarako

2. Orion ekipamenduen egoera nola baloratzen duzue, 1etik 10era, zein puntuazio emango zenioke (1 eskasa eta 10 bikaina)? Zergatik?

- Balorazioak: Zaragueta HE 7; Danbolin ME 5; Orioko HI 5. Dena den, hezkuntza arloan 0-16 adin tarteko eskaintza asetuta dagoela uste dute.
- 7, bai kantitateari eta baita kalitateari begiratuta

3. Zer dago hobetzeko?

- Hezkuntza:
 - Frontoiari etekina ateratzeko hobekuntzak egin
 - Dikeko zonaldea kontuan hartu, kirol-gune edo aisialdirako espazioak jarri
 - Haur eskolako terrazak estali gelari luzapena emateko
 - Autopistatik hondartza aldera, oinezkoentzako estalkiak
 - Hondartzako espaloia zabaldu
 - Moila aldetik irisgarritasuna hobetu
 - Abaromendi aldean kirol-eremuak eta aisialdirako eremuak jarri
 - Zaragueta Herri Eskola:
 - ✓ Kanpo-espazio falta: eraikina 2 etapatarako pentsatuta egin zen eta orain 3 etapa daude.



ORIOKUDALA

- ✓ Aterpe baten beharra
- ✓ Argiteria
- ✓ Bidegorria (ez da iristen)
- ✓ Areto bat ikasle guztiak bildu ahal izateko
- Orioko Herri Ikastola:
 - ✓ HH, LHko eraikina zaharkitua dago, fatxada berritu beharra (segurtasunagatik)
 - ✓ Ibai aldeko sarrerak aterpea beharko luke
 - ✓ DBHn ez dago eremu estalirik
- Danbolin Musika Eskola:
 - ✓ Zaharra geratzen ari da: berogailu-sistema, elektrizitatea
 - ✓ Irisgarritasuna: igogailurik ez barruan
 - ✓ Instrumentuak zaharkituak
 - ✓ Auditorio baten beharra, kontzertuak emateko
- Osasuna:
 - Osasun zentroa txiki geratu da. Herria handitzen ari da, eta, gero eta paziente gehiago dituzte (mediku bakoitzak kupo altua: 1720), espazioa handituz gero, beste erizain bat izateko aukera dute,
 - Hainbat elementu daude konpontzeko eta hobetzeko OZan:
 - ✓ sarrerako atea, igogailua (esku-ohea edo kamila ez da sartzen),
- Adinekoak:
 - Zaharren babes-lekua txiki geratzen ari da
 - Ariketa fisikoa egiteko eremu gehiago
- Merkataritza:
 - Eraikinei errentagarritasuna ateratzeko egokitu, adibidez, Arraun Etxea.
 - Ekipamendu asko daude, baina beraien artean ez dago loturarik, ekipamenduen arteko kohesioa landu
 - Aparkalekuak erdigunean. (Aukera bat izan daiteke, polideportiboan udalarenak direnak futbol zelai azpikoekin ordezkatzeari, eta horrela polideportibo azpikoekin sistema errotatorioa edo jartzea.)
- Turismoa:
 - San Martingo argiteria erromesentzat, kalearen egoera eta saneamendua
 - Aparkalekuak
 - Arraun Etxeko pantalanaren irisgarritasuna hobetu. Segurtasun arazoak ditu.
 - Aparkaleku handietan herriari buruzko informazio orokorrarekin kartelak ipini.
 - Turismo bulegoa behera jaitsi, eta udan beste informazio puntu dinamikoak sortu hondartzan (herrian zer dagoen informatzeko)

- Benta gaineko aparkalekua auto-karabanentzako egokitu, eta bidea egokitu, bide bazterreko seinaleak, etab.

Zer behar duzue? Zergatik? Zertarako?

- Parke estaliak haurrentzako. Daudenak txiki geratu dira, gainera zikinak eta zahartuak daude.
- Zine bat, areto bat, erabilera anitzekoa. Auditorio bat
- Tanatorioa
- Pentsioak, lotarako toki merkeak
- Aisialdirako pantalan berria
- Herrian auto-karabanentzako gunea

Bestelakoak, ekipamenduak ez direnak:

- Turistak herrian geratzeko amua arraunarekin landu
- Etxe turistiko ilegalen kontra neurriak hartu
- Tabernak goizago irekitzea eta eguerdiko otorduak luzatzea erromesentzat
- Plaza trafikora ireki
- Erriyua turistikoki landu

Galdera egin du batek:

saio hauetan adosten direnak lotesleak izango dira? Zein irizpideren arabera hartuko dira erabakiak?

Amaitzeko, balorazioa, hitz batekin egin dugu, eta honakoak esan dira:

- Interesgarria,
- Ondo, eta aurrera eraman dadila ateratzen dena
- Aberasgarria. Zinegotzi batentzat herritarren iritzia eta ikuspegia jakitea aberatsa da.
- Mugatua. Ekipamendu bakoitzaren informazio zehatzagoa bota dut faltan.
- Gogoeta. Aurreko urteetan egin izan diren akatsak ez errepikatzeko baliagarria.
- Aberatsa. Jende desberdinak behar desberdinak ditugula kontzientzia hartzeko.
- Harrituta. Osasun Etxearen egoera ezagututa, txiki geratu dela, dituzten kupoak, etab. lehentasuna horrek beharko luke.